

Aretxagazeta

ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA
**Bizigune programa
abian da /08**

HAUTSKUNDEAK
**Hauteskundeetako
emaitzak /09**

LEINTZ GATZAGA
**Hauteskundeei
gainbegiratua /10**



KAFE-TERTULIA HIRUATXEN ESKUTIK

GAUR, EGUENA, 19:00ETAN, UDALETXE ZAHARREAN

ARKARAZOKO ERREPIDEA: EZIN KONPONDU/4 • KIROLAK: ARETXABALETAKO TXIRRINDULARIAK/6

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 20
FRAILE, J. Herriko Plaza 10. 943 79 21 99

DOMEKA, 21
FRAILE, J. Herriko Plaza 10. 943 79 21 99

TELEFONO JAKINGARRIAK

OROKORRAK

Almen 943 71 49 07
ARETXAGAZETA 943 79 86 21
Faxa 943 77 18 54
Basotxo 943 77 09 81
Euskalergia 943 79 21 68
Gizarte laguntzailea 943 71 18 62
Hezibide elkarteak 934 79 31 32
Industrialdea 943 79 62 80
Institutua 943 79 79 00
Kirol etxea 943 71 26 28
Kultura etxea 943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola 943 79 00 49
Kurtzebarri BHI 943 79 57 40
KZGunea 943 79 94 44
Liburutegia 943 71 18 62
Loramendi EE 943 77 09 70
Ludoteka 943 79 05 81
Mankomunitatea 943 79 30 90
Murruxio ME 943 79 93 74
Musika Eskola 943 79 36 50
Osasun etxea 943 79 74 58
Otalora 943 71 24 06
Parrokia (bulegoa) 943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola 943 77 03 77
Postetxea 943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea 943 79 17 00
Taxi geltokia 943 77 12 64
Udal Bulegoak 943 71 18 62
Udaltzaingoa 943 71 18 63
Urats Gain 943 79 99 11

UDALTAINGOA
Arrasate 943 79 14 39

LARRIALDIK

SOS Deiak 112
Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
Ertzaintza 943 53 47 20
Gurutze Gorria 943 76 55 76
Larrialdia 943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati) 943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 11:00, 12:00
Zapatuetan: 19:30
Lanegunetan hiletak: 19:00

SANTA RITA
Domeketan: 09:00
Lanegunetan: 19:00

BASERRI AUZOETAN: GOROETA
Domekan 11:30ean.

ARKARAZO
Domekan 12:30ean.

GALARTZA/IZURIETA/GELLAO
Ez dute mezarik esango.

OHARRAK

KAFE-TERTULIA AMERIKA ETA ASIAKO LAU LAGUNEKIN
Mundukide Fundazioarekin eta Truke programaren barruan etorri diren lau lagunek kafe-tertulia eskainiko die herritarrei. Txileko, Ekuadorko, Filipinetako eta Brasilgo ordezkariak euren herrieta-ko egoeren berri emango dute gaur, eguena, 19:00etan, udaletxe zaharrean. Hiruatx elkarteak antolatu du ekitaldia.

BASOTXOKO ERRETIRATUEK BENIDORMERA BIDAIA
Basotxo Erretiratuen Elkarteak bidaia antolatu du Benidormera. Apirilaren 24tik maiatzaren 8ra izango da bidaia, eta izena Basotxon bertan eman behar da, egunero 11:00etatik 12:00etara bitartean.

ZURE OHAR ETA DEIALDIK ARETXAGAZETAN
Zure bizilagunei, lankideei edo aretxabaletarrei, orokorrean, ohar bat jakinarazi gura badiezu, hemen duzu tarte egokia. Deitu edo bidali zure oharra:
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54

LORAMENDIRENAGENDA

AMARAUN TALDEA
Konzertua emango du Amaraun taldeak martxoaren 26an, egubakoitza, 22:30ean, Orly tabernan. Euskal jazz egiten du.

MAKILLAJE IKASTAROA
Datorren apirilaren 5ean, makillaje ikastaroa emango dute Etxeandia ahizpek, Loramendi EEk antolatuta. Gemes estetika zentroan izango da, 18:00etan.

ORAINDELA 8 URTE ARETXABALETAN

Zine emanaldiak hasi zituzten martxoan

1996ko martxo erdian hasi zituzten zine emanaldiak, denboraldi batez itxita egon eta gero. Kruz Mari Ansoalde Azpeitiko enpresaburuak hartu zuen zinemaren ardura, eta astean lau egunean hasi ziren filmak eskaintzen. Nagusiendako zein umeendako filmak hasi ziren ematen.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Kukumixo"

Makurtuta, kakaginan bezala.
—Kukumixo egon, jarri.



ZORIONAGURRAK



ESKORIATZA
Maite Larrañaga
16an, 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.




ESKORIATZA
Mari Jose Kortazar
18an. Zorionak eta urte askotarako, lagun guztien partetik.



ESKORIATZA
Ane Benito
19an, 9 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Amaia Agiriano
19an. Zorionak eta muxu handi bat, lehengusu guztien partetik.



ESKORIATZA
Aratz Kortazar
22an, 16 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Iker Perez
22an, 2 urte. Zorionak eta muxu handi bat, gurasoen eta Xabinen partetik.



ESKORIATZA
Itziar Mujika
23an. Txokolatie txurru-ekin inbittauko diguzu, ez? 19:00etan, Inkernun.

BABESLEA

PHOTOSYNTHESIS
argazkilaritza

35mm, APS eta digitalen errebelatuak 24 orduan. Tamaina guztiak.


Kamerak • Karnetetako argazkiak • Ezkontzak • Studioko argazkiak
Herriko plaza 5 ARETXABALETA 943 79 79 67

Errekabarren merkataritza etxea.

Guztia bertan. Guztia Errekabarren kalean.




MARI KARMEN
ZAPATA-KONPONKETA DENDA
943 79 59 85



IRUDI
ILE APAINDEGIA
943 79 80 90



LEINTZ-ROSI
MERTZERIA
943 79 78 63



ERREKABARREN
FRUTATEGIA
943 79 96 43

GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel: 943 79 01 28



ANDRA MARI

Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea 3
ARETXABALETA
Tel. 943 79 29 26

ATREBENTZIAEZPADA/ Kontsumitzaillien egune pasau da. Badakitzu herrixen bulegue daukogule?



AINHOA ITURRICASTILLO
Langillie

Ez, ez nekixen. Zorionez ez dot sekule arazorik euki kontsumitzaillie moduen, eta ez jat sekule holako bulego batera fan biherrik tokau. Nere inguruko ino-ri be ez dutzet entzun.



ANJEL BENGOA
Langillie

Bai, banekixen, baiñe ni neu ez naz sekule fan. Ero- sittede danakin ez naz kon- forme egon beti, baiñe kon- sumitzaillien bulegora fa- teko besteko arazorik be ez jat sekule tokau.



ANA LETIZIA URTUBI
Langillie

Ez, ez neuken idearik be; kanpuen be bizi izen naz eta ez nekixen ezer. Ez dot seku- le arazorik euki, eta etxien be ez dutziet sekule entzun. Hortan, ez dot holako bule- gorik faltan igerri.




EDUARDO ALTUBE
Jubilaue

Bai, banekixen. Bulegora fan eta galdera batzuk egi- ttie pentsau izen dot noix edo noix, baiñe ez naz seku- le bertaraiño aillegau. Izen be, problema haundirik ez jat tokau parien.



ESPERANZA GRANDE
Langillie

Ez, ez nekixen. Ez dot seku- le arazorik euki. Egoera txar- rien euzen produktuek erostie tokau izen jat, bai- ñe beti bueltau izen dustie dirue, eta ez dot sekule sala- ketarik jarri.



JOSE MARI ANTON
Langillie

Ez, ez nekixen. Barrixe izen- go da, neu behintzet ente- rau barik nau-eta. Erosi izen doten danakin kon- forme egon izen naz; hortan, ez dot sekule holako bule- go batera faterik pentsau.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK TXAKURRAK LORATEGIETAN Orain hilabete inguru txakurren gaineke bandoa kaleratu zuen Udalak. Txakurren jabeek dituzten eskubide eta betebeharren berri eman zuen, eta lorategiak errespetatzeko eskatu. Antza denez, guztiek ez zuten ondo ulertu, eta oraindik lorategietara eramaten dituzte txakurrak euren zereginak egiteko. Isunak jartzen hasi beharra egongo da? /M.A.

ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN /04

Arkarazoko errepidea

Arkarazora doan errepidea konpon- tzen dabil Udala. Behin-behineko konponketa izango da.

ASTEAN BEHIN /05

Hauteskunde biharamuna

EAJk jaso zituen boto gehien domekan herrian, eta PSOE izan zen bigarrena Arala- rren aurretik.

KIROLAK /06

Dorletako Ama taldea

Hainbat aretxaba- letar dabilta aurten ere Dorletako Ama Txirrindulari Eskolan.

ASTEKODATUA

43

PUNTU DITU PREFERENTE MAILAKO UDA TALDEAK

Oso ondo dabil azken hilabeteo- tan preferente mailako UDA tal- dea. Dagoeneko sailkapeneko 5. postuan dago, eta 43 puntu ditu. Debagoieneko taldeen artean lehenengo dago.

BESTEKEESANA

“ Ni baserritarra naiz, eta esnea KAIKUK jasotzen dit. Eta kalekume kaikuok, gure sektorearen

egoeraren berri, Berrian ere azaldu arren, ideiarik ere ez duzuela pentsatzen dut.

Guretzat KAIKU beharrezkoa da, esne konpainia horrek nolabait babesten gaitu.


Jakina da euskarazko izena bera ere nahiko oztupoa dela Euskal Her- ririk kanpo gure produktua saltze- ko; beraz, mesedez, ez eman kanpo- tarrei hona sartzeko erraztasunik.

Nik ikusitakoagatik, KAIKU, bai kilometroak jaian, bai eskola publi- koaren egunetan, han egoten da. Ez da nahikoa, urteak 365 egun ditu eta.

Baina eskatzen duzuen bertako produktu bati boikota egin gabe egizue; nik egin dut.

JULEN ABASOLO
‘Berria’/04-03-11

HERRITARRENBERBAK/ Lore Abarik



Errespetua eta elkarrizketa

Aste honetan, martxoak 8a pasatu berri denean, feminismoari buruz hitz egitea pentsatua neukan: emakumeon egoerari buruz, gizon eta emakumeon berdintasunari buruz, etab... Baina azken egunotan izandakoak aurrean edukita, joan zen ostegunean Madrilen gertatukoari buruz hitz egin behar nuela pentsatu dut. Erabaki honek ez dauka zerikusirik hildakoen kopuru- rekin; gaizki ez banabil, urtero askoz emakume gehiago hiltzen baitira tratu txarren ondorioz terrorismo hilketengatik baino.

Iritzi artikulurako beste aukera bat ere bururatu zitzaidan. Artikuluaren txoko honetan hitzik ez jartzea, txoko guztia hutsik uztea, isiltasuna, dolumina, ezintasuna adieraziz. Baina hori ere ez egitea erabaki dut azkenean, ez litzatekeelako batera justua izango. Oraingoan berrehun izan dira; kopuru izugarria da,

baina aurretik beste hamar mila (gutxienez) erail dituzte, eta urtero beste banaka batzuk ere erailak izaten dira. Arrazoi ezberdinegatik, inongo justifi- kaziorik ez duten erailketak. Madrilen gertatukoa sarraskia dela esan dute, eta nik galde- tzen dut ea non dagoen muga sarraskia den edo ez definitzeko. Niretzat, pertsona bakar baten erailketa, hori ere sarraskia da hiltzailearen kolorea edozein izanik ere, eta erantzun maila berekoa izan beharko litzateke

beti.

Bukatzeke, horrelakoetan esan ohi duguna adieraztea besterik ez zait gelditzen: azkenena izan dadila. Ez berrehun, ez hamar mila, ezta pertsona bakar bat ere gehiago. Biolentziak gorrotoa besterik ez dakar. Pertsonen eta herrien arteko errespetua behar dugu, eta batez ere ELKARRIZKETA. Elkarrekin hitz egin gabe sarraski hitza ez dugu gure hiztegitik sekula kenduko.

“Pertsona bakar baten erailketa, hori ere sarraskia da hiltzailearen kolorea edozein izanik ere”

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABAETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
55-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
3.800 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriritzak
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

Neu be kanpora

Zapore goxue itxi eusten fan zan aste bukaeriek. Ez, ez nenbillen hauteskundien gaiñien berbetan; izen be, politikarixek lanien hasten dienien balorau biher die, aurretik ezin jakin zer egingo dauien...

San Kanuto edo Kanuto Deunaren egune neuken goguen. Hori bai girue, azken aldixen Aretxabaletan ez geuken halako giroxorik. Poli eta Ganglino be mutikuek letxe ibilli zien taula gaiñien. Zozketie be egin euien antolatzailliek eta hona zenbakixek: 3.437, 5.330 eta 1.244. Lelengo bixek globuen bidaiatxue egiteko aukerie izengo daue Leintz baillara gaiñetik, eta hirugarrenandako ez usteko oparixe. Nik begiretu dutziet nire zenbakixei, baiñe ez jat tokau. Ia zuetakoren batek dauken... globuen bidaiatxue egittie zirrarragarrixe izengo da-eta.

Aste bukaera honetan, oster, ez daukou ezer. Gaur, kafe tertulia Txileko, Ekuadorreko, Filipinetako eta Brasilgo lau lagunuen eskutik. Hurrengo hiru egunetan, barrez, ezer ez. Kanpora alde egin biherko dou. Gero inor ez dala egoten herrixen esango daue, baiñe aste bukaera luzetxuau bat aurrien eukiz gero, zer egingo dou ba? Neu be kanpora noie. Hurrengo astien kontu gehixau.

HIRIGINTZA/ Orain urtebete konpondu zuten errepidea, baina elurrek ekarri duten uraren ondorioz berriz egin du behera

Arkarazoko errepidea konpontzeko Foru Aldundiari laguntzeko eskatuko dio Udalak

MIRARI ALTUBE

Arkarazo auzora doan errepidea konpontzen dabilta egunotan. Orain urtebete ere konpondu zuten, baina otsaileko elurteak berriro zartatu, eta lurrek behera egin zuten. Behar bezala konpontzeko Udalak Foru Aldundiari eskatuko dio laguntzeko.

Arkarazoko errepidea ezin konponduta dabil Aretxabaletako Udala. Ondo konpontzeko diru asko behar du, eta Foru Aldundiari eskatuko dio laguntzeko.

INBERTSIO HANDIKO LANAK

Otsail bukaeran egindako elurteak ur asko ekarri zuen, eta ondorioz Arkarazoko baserrietara doan errepideak behera egin zuen. Udala hori konpontzen dabil auzotarrrek arazorik izan ez dezaten, baina Hirigintza Saileko arduradunen esanetan behin-behineko konponbidea da.

Aurtengoa ez da Arkarazoko errepideak izan duen lehen arzoa; izan ere, orain urtebete egindako euri jasek bidea zartatu eta apurtu egin zuten. Orduan egindako ikerketaren arabera 50 metro inguruko horma egin behar zitzaion errepideari ez jausteko,



Arkarazoko errepidea konpontzeko inbertsio handia egin beharko du Udalak, eta Foru Aldundiari eskatuko dio laguntzeko.

eta 115.000 euro gorde zituen Udalak horretarako. Konpontze lanok hasi zituztenean, oster, hori baino horma handiagoa behar zuela ikusi zuten, eta egin beharreko inbertsioa ere askoz handiagoa zen.

Ikerketa sakonagoa egin eta bidea behin betiko konpontzeko asmoarekin, Udalak Foru Aldundiari eskatuko dio laguntzeko. Hirigintza Saileko arduradunak eta alkatea joango dira Aldundi-

ko arduradunekin berba egitera, eta ikusi egin behar zein borondate erakusten duten Donostia aldean. Ea hurrengo elurteek edo euri-jasek ez dieten arazorik ematen auzotarrei.



Hainbat kale bilkura egin dituzte azken egunotan

Joan zen eguenean egin zuten lehen kale bilkura Madrilgo atentatua gaitzesteko. Herritar ugari batu ziren udaletxe aurrean, 200 inguru. Hurrengo eguenean, sindikatuak eskatutako lanuztea egin zuten langile askok. Zapatuan, oster, *Euskal Herrian eta munduan elkarriketa da bidea* lelopean egin zuten kale bilkura, eta domekakoa Anjel Berroetaren hil-keta salatzeke izan zen. /M.A.

IRIARTE

Umeen
denda



Helduen
lentzeria

Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETAKO

Mortin

erloju-denda

Bere bezeroen
zerbitzura

Mitarte 16
Tel.: 943 79 01 72
ARETXABALETAKO

Jou Díaz

Harakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETAKO

ARQUERO

CONSTRULAN S.L.

ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tel.: 943 79 01 51
Basabe poligonoa 4, EQ-11 • ARETXABALETAKO

Zuzendaria:
**Lyonel
Arquero**

Dekorazioa:
**Soraya
Arquero**

EAJk lortu zituen boto gehien eta alderdi sozialista izan zen bigarren bozkatuena

M.A.

Hauteskunde biharamunak datu asko utzi dizkigu. Egun lasaia izan zen, eta herritar asko hurreratu zen botoa ematera: 3.966, hain zuzen ere. EAJ alderdiak lortu zituen boto gehien Aretxabaletan, eta haren ostean, alderdi sozialista geratu zen.

Egun lasaia izan zen domekakoa. Herritarrak geratu barik hurreratu ziren Kurtzebarri eskolara, eta momentu batzuetan jende ilarak sortu ziren botoa emateko mahaien aurrean. Ilunkaran, bestalde, kale bilkura egin zuen taldetxo batek eskola parean, PP-PNV Hiltzaileak zioen kartela aurrean hartuta.

EAJ GARAILE


Orain lau urte baino parte-hartze handiagoa izan zen domekan, %75,48koa; hori horrela, PPk izan ezik gainerako alderdiek gora egin dute. Bergarako Ekimena ez zen aurkeztu orduan, eta Aralar-Zutik oraindik ez zegoen.

EAJ alderdiak lortu ditu boto gehien, 1.128, eta atalez atal ere hura izan da bozkatuena. Alderdi sozialista izan da hurrengoa 648 botorekin, eta Aralar-Zutik hirugarrena, 544rekin. Iazko udal hauteskundeetan baino 331 boto gutxiago jaso ditu hark. Bergarako ekimenak 511 jaso ditu, EAJ 461, PPk 301, eta azkenik Ezker Batuak 287 boto izan ditu.



Geratu barik hurreratu ziren herritarrak Kurtzebarri eskolara domekan.

ESPAINIAKO GORTEETARAKO HAUTESKUNDEAK



ESPAINIAKO GORTEETARAKO HAUTESKUNDEETAKO BOTOEN BANAKETA ATALEZ ATAL

	1-A	1-B	2-A	2-B	3-A	3-B	4
EAJ	163	145	221	166	158	123	152
PSOE	114	118	74	94	116	83	49
ARALAR-ZUTIK	75	49	103	63	85	83	86
BERGARAKO EKIMENA	57	46	115	74	70	58	91
EA	58	40	96	59	101	64	43
PP	40	41	62	54	46	36	22
EB-IU	37	47	47	46	44	39	27

HITZALDIA/ Txile, Filipinak, Ekuador eta Brasil ezagutzeko aukera izango dute herritarrek

Mundukiderek etorritako lau lagunek mahai ingurua egingo dute

M.A.

Mundukide Fundazioak eta HUHEZIK antolatuta, Afrikatik, Amerikatik eta Asiatik etorritako hainbat lagun daude Debagoienean. Horietako lau lagunek kafe-tertulian eskainiko diete aretxabaletarrei gaur, 19:00etan, udaletxe zaharrean, Hiruatx elkarteak antolatuta.

Gure herria ezagutzera etorri dira, baina euren errealitatearen berri ere eman gura dute. Hori horrela, kafe-tertulian eskainiko dute gaur ilunkaran.

GURE IBARRA EZAGUTZERA

Mundukide Fundazioaren bitartez eta HUHEZIKen laguntzarekin 14 lagun etorri dira aurtun Tru-

ke programarekin Debagoienara; bosgarren aldiz etorri dira, hain zuzen. Martxo hasieran heldu ziren, eta Honduras, Txile, Ekuador, Filipinak, Argentina, Brasil, Kolonia, Kuba, Mozambique eta Guatemalako hainbat komunitateko arduradunak dira.

Gure ibarra eta gure lan egiteko era ezagutzera etorri dira. Hori horrela, dagoeneko ikusi

dituzte hainbat enpresa —Irizar, Eroski, Orkli...— eta ikastetxe —Arizmendi ikastola, Arantzazu Artzain Eskola...—. Horrez gain, euren egoeraren berri eman gura digute, eta hainbat hitzaldi eta mahai inguru egiten dabilta.

AMERIKAKO ETA ASIAKO LAU LAGUN

Gaur, martxoak 18, kafe-tertulian eskainiko digute Truke programarekin etorritako lau lagunek. Txileko Nayade Panez, Filipinetako Chone Evelyn Baldoza, Ekuadorko William Eduardo Ramirez eta Brasilgo Gilberto Dos Santos izango dira udaletxe zaharrean elkartuko direnak. Urtero antolatzen du Hiruatx elkarteak kafe-tertulian Hirugarren Munduaren egoera bertatik bertara ezagutzeko.

*Urtero antolatzen du
Hiruatxek kafe-
tertulian Hirugarren
Munduaren egoera
ezagutarazteko*



Giro bikaina Kanuto Deuna ospatzeko

Zapatuan ospatu zuten Kanuto Deunaren eguna, eta giro bikaina izan zuten, goizean goizetik. Gaitariek doinu dantzagarriekin alaitu zituzten herritarrak, eta babarrun-janerako 90 lagun inguru elkartu ziren. Arratsalde partean astotxo gainean ibili zuten kalean Kanuto. Karlote y los 3 del Patibulo taldeak bukaera dotorea eman zion laugarren Kanuto Deuna egunari. /M.A.

TXIRRINDULARITZA

Hainbat aretxabaletar ibiliko dira aurten ere Dorletako Ama taldean

Asier Bengoak infantilen taldearen ardura izango du eta koordinatzaile lanak egingo ditu

M.A.

Martxoaren 6an egin zuen Dorletako Ama Txirrindulari Eskolak aurkezpen ekitaldia: Lau talde ditu, eta aretxabale-tarrak ere badaude, bost guztira. Mendiko bizikleta taldea aurkeztu dute, gainera, aurten, eta Iñigo Roldan aretxabaletarra dago taldean.

Txirrindulariek hasi dute dagoeneko denboraldia. Gogor ekin diote, eta asteburuan hainbat lasterketa izango dituzte.

ESKOLA KIROLA

Asier Bengoa aretxabaletarrak egiten ditu koordinatzaile lanak Dorletako Ama Txirrindulari Eskolan. Hori horrela, Foru Aldundiak bultzatzen duen esko-

la kirolaren ardura ere berak dauka. Astean hasiko dute, gainera, txirrindularitza ikastaroa. "Urtero eskaintzen dugu inguruko ikastetxeetan txirrindularitza ikastaroa. Astean hasiko ditugu, eta hiru hilabetez ibiliko gara hara eta hona irteerak egiten gaztetxoekin", dio Asierrek.

Horrez gain, entrenatzaile lanak ere egiten ditu Asierrek;

izan ere, infantilen taldearen ardura dauka. Hainbat aretxabaletar daude Dorletako Ama Taldean. "Alebinen mailan ez daukagu talderik, baina aretxabale-tar bat dago, Jon Ander Guerrero, eta lasterketetara joango da". Infantiletan Xabier Sierrak hartuko du parte, eta kadeteen mailan Julen Galiano eta Antxon Anduaga dabilta. Gazteen mailan, ostera, ez dago herritarrik. "Kadeteek eta gazteek hasi dute dagoeneko denboraldia, eta pozik gaude emaitzekin; infantilek apiril hasieran izango dute lehenengo lasterketa", dio Asierrek.

Bestalde, Ederra Taberna mendiko bizikleta taldea sortu dute, eta Iñigo Roldan aretxabaletarra dabil bertan. Hilaren 28an Euskadiko Openaren bigarren proba jokatu dute Arrasaten.

"Urtero eskaintzen dugu ikastetxeetan txirrindularitza ikastaroa, eta astean hasiko dugu"



800 gaztetxo inguru elkartu ziren domekan mendi ibilaldia egiteko

Mutrikutik hasi eta Eskoriatza bitarteko 30 bat ikastetxetatik etorritako 800 gaztetxo eta 150 begirale elkartu ziren domekan Aretxabaletan. Eguraldi ederra egin zuen, eta mendi ibilaldi polita egin zuten Apotzaga, Asensio eta Untzilla bitartean. Bukaeran nekatuta baina pozik zeuden guztiak, eta diploma, gozokiak eta opariak jaso zituzten Zaraia Mendi Taldearen eskutik. /M.A.

FUTBOLA

Bikain hasi dute neskek Kopa Txapelketa, eta itxaropentsu daude

Liga denboraldia bukatuta, bosgarren postuan laugarrenarekin berdinduta, Kopa Txapelketa jokatzeko hasi ziren joan zen astean. 6-0 irabazi zioten Urki taldeari aretxabaletarrek. Ligako hiru talde onenek ez dute Kopa jokatu; hortaz, UDA/Almen taldeak txapelketa irabazteko aukera dauka. Asteburuan bi partidua izango dituzte: egubakoitzean Gasteizen eta domekan etxean.

XAKEA

Eutsi egin diote mailari aretxabaletarrek, eta Euskal Ligako Ohorezko Mailan jarraituko dute

Bukatu dute denboraldia xake jokalariek. Larri ibili dira aretxabaletarrak, baina azkenean Ohorezko Mailan jarraituko dute. Orvina taldearen aurka jokatu zuten zapatuan, eta bi puntu lortu zituzten talde bakoitzak. Horrela, 12,5 punturekin bukatu du denboraldia Arlutz Xake Taldeak, Urrietako taldearekin berdinduta, hain zuzen. Hala ere, aretxabaletarrak aurretik geratu dira.

FOTOKIROLA



Markel Uriarte da infantiletan txapelduna

Gipuzkoako Trialsin Txapelketako azkenurreko proba egin zuten domekan Aretxabaletan. 56 lagunek hartu zuten parte, eta lokatz artean larri ibili behar izan zuten. Markel Uriartek irabazi zuen infantilen mailan, eta finala jokatu barik ere Gipuzkoako txapelduna da. Unai Mendikute hirugarren postuan geratu zen, eta Nagore Uriarte bigarren, neskei dagokien mailan. Superclass mailan, uste bezala, Iker Lezetak irabazi zuen. Finala datorren astean izango dute Urretxun. / M.A.

URKULU


FERRETERIA • BRIKOLAJEA
INDUSTRIA HORNIDURAK

Mitarte 23 / ARETXABALETA
Tel.: 943 79 96 66 / Faxe: 943 77 10 33
urkulu@cadena88.com

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Aholkularitza

Basabe poligonoa F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 - Faxe: 943 71 22 68

HURRETIK



Martin Garai

KONTSUMITZAILLIEN BULEGOKO ARDURADUNE

Astelehenien kontsumitzaillien egune izan zan, eta horregatik jo dogu gaurkuen Martin Garaiengana. Bera, Aretxabaletako Kontsumitzaillien Bulegoko arduradune da, eta eskaintzen dittuen zerbitzuei buruz arritu gara berriketan.

Noiztik dau zabalik bulegue?

Aretxabaletako buleguek 1984an zabaldu zittuen atiek, eta neu 1986tik nabil arduradun lanetan.

Baillarako bakarra da edo gehixau daz?

Hasieran ibarrien herri gehixautan eozen holako buleguek, baiñe momentuen herrikue da geraketan dan bakarra. Kontsumitzaillien informaziñorako beste bulego batzuk Eibarren eta Elgoibarren aurkittu leikez.

Ze zerbitzu eskaintzen dittuzue?

Informaziño orokorra emuten dou batezbe, informaziño zehatza, kexak jaso, erreklamaziñuek bideratu eta bitartekari lanak egitzen dittut arazue daukien bi aldiekin.

Urtien zenbat jente etorten da bulegora?

Zaille da esateko, baiñe asko. Urtero 150 bat erreklamaziño jasoten dittugu, eta 300 bat kontsulta.

Herrittarrak edo kanpotik etorten die gehixau?

Danetik etorten da hona, baiñe gehixenak mondragoetarrak die. Hala eta be, poliki-poliki aretxabaletarrak be hasi die etorten.

Zeintzuk die gehixen entzuten dittuzuen kejak?

Etxeko obrei buruzko galderak izeten die gehixen bat, seguruekin edo etxebizitzekin arazuek daukienen galderak... Baiñe azken aldixen telefono konpaiñiei buruzkuek be heldu jaku, 906 lineari buruzkuek hain zuzen be.

Zenbat zabitze lanien informaziño buleguen?

Neu bakarrik nabil lan honetan.

Zein da buleguek dauken ordutegixe?

Goixien 8:30etan zabalzen da bulegue, eta 13:00etan itxi. Arratsaldez 15:00etatik 18:00etara egoten naz bertan.

Garrantzitsue da holako bulegue eukittie?

Bai, neuretako oso garrantzitsue da. Gaiñera, mankomunitatiek hartu biheko leuke ardurie eskaintza hobie emuteko.

Esan egixe. Konponketan die arazuek hona etorritte?

Aretxabaletakoak behintzet bai, gehixenak konponketan diela esan neike. Eta batez ere, bitartekari lanak eginde konponketan dittut bi aldien arteko arazuek.

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

NIREBIDAIAHURA/ Iker Isasmendi eta Salva Rodríguez

Atenas (Grezia) / 2003ko azaroa

Realaren jarraitzaile sutsuak dira Isasmendi eta Salva. Anoretan jokatzeko dituen partidu guztiak ikustera joaten dira. Baina, aurten, Europa aldean ere ibili da Realak. Hori horrela, bizitzan behin ikusiko dutela Realak Champion txapelketa jokatzeko eta Atenasen Olympiakos taldearekin jokatu zuen partidua ikustera joan ziren.

Atenasera joan bai, baina ez zuten edozein bidaia aukeratu. Realeko jokalariekin eta kazetariarekin egin zuten bidaia hegazkinean, eta Atenasen ere guztiak hotel berean egon ziren. "Aireportura heldu ginenean geu bakarrik geunden, eta gero kazetariak etorri ziren. Kazetariak ailegatu zirenean hemen daude aretxabaletarrak esan zigun Mujikak ikusi orduko. Antza denez, Xerezen dagoen Mikel Etxaberekin berba eginda zegoen, eta berak esan zion gu joango ginela hegazkinean", dio Salvak. "Barre galantak egin genituen kazetariarekin. Hala ere, gu oporretan gindoazen, eta eurak lanera eta hori ikusten zen".

Realeko taldekide guztiak oso ondo portatu zirela aipatu gura dute Salvak eta Isasmendik. "Bai Barkerero, bai Bonba uneoro etorri zitzaizkigun zer moduz geunden galdezka. Orokorrean oso jatorrak izan ziren guztiak, horren kexarik behintzat ez dau-



"Kazetariak ailegatu zirenean hemen daude aretxabaletarrak esan zigun Mujikak"

"Jarraitzaileei dagokionez gu baino askoz beroagoak dira, eta izugarri animatzen zuten"

egiten dute, hortaz, ikusgarria izango da jarraitzaile guztiak abesten entzutea" diote.

Bizitzan behin egiteko bidaia izan da Isasmendi eta Salvak egindakoa, eta ederto pasatu zuten.

M.A.



Realeko taldekideekin eta kazetariarekin joan ziren Iker eta Salva Atenasera Olympiakos taldearen aurka jokatu zuen partidura.

Herrialde berriak bisitatu dituzu?

Zure bidaia kontatzeko prest zaude? Anima zaitetz, zure abenturak gustura irakurriko ditugu eta!

Deitu 943 79 86 21 telefonora.



Zebarri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Eguena / 2003ko martxoaren 18a / 160. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxe: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Bizigune programa abian jartzeko langile bat kontratatu du Eskoriatzako Udalak

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Herrian etxebizitza ugari daude hutsik. Horiei erabilera eman nahirik, Eskoriatzako Udalak Bizigune programa jarri du martxan. Hutsik dauden etxeen gaineko ikerketa egin eta jabeei Biziguneren abantailak zeintzuk diren azaltzeko, langile bat kontratatu dute.

Eskoriatzako Udalak pertsona bat kontratatu du Eusko Jaurlaritzak abian jarritako Bizigune programa aurrera eramateko. Proiektuaren funtsa, herrietan hutsik dauden etxebizitzetara erabilgarritasuna ematea. Eskoriatzan egitasmoa onartu eta aurrera eramatea pentsatu dute. Herriko etxe hutsei buruzko ikerketa egingo du Udalak kontratatutako langile berriak, eta ondoren, jabeei Bizigunek eskaintzen dituen abantailen berri emango die.

PROIEKTUAREN NONDIK NORAKOAK

Etxebizitza hutsen jabeek proiektuan parte hartzea erabakiz gero, VIVESAren esku utziko dute etxe huts hori. Horrela eginez gero, merkatuko errenta jasoko dute hileroko jabeek. VIVESA zera ber-



ARTXIBOA

Proiektua, funtsean, herriko etxebizitza hutsak ikertzean eta jabeei abantailen berri ematean datza.

matzen die programan parte hartzen dutenei: zuzentasunez ordainduko zaiela eta kontratua amaitzerakoan etxebizitza egotira onean itzuliko zaiela.

ETXEBIDETAKO ERE AUKERA

Horrez gain, Etxebiden (Etxebizitzako Euskal Zerbitzua) izena emanda dutenek Biziguneko programa barruko hutsik dauden

etxebizitzak erabiltzeko aukera izango dute, eta beraien diru sarreraren arabera ordainduko dute alokairua. Horrela, jende guztiak aukera izatea espero dute.

Hutsik dauden etxeen buruzko ikerketa egin eta jabeei abantailen berri emango zaie

Etxebiden izena emanda daudenek ere etxeak erabiltzeko aukera izango dute

Etxebizitza arazoa konpontzeko Bizibide programa egokia dela dio Udalak



Herrian ere, egubakoitzean lanuzteak

Aurreko astean Madrilén zibilen kontra egindako eraso gaitzesteko lanuzteak egin ziren egubakoitzean. ELA, LAB, EILAS, EHNE, ELB eta Hiru sindikatuek deituta ordu laurden gelditu ziren herriko ehunka langile. Argazkian, Fagor Ederlaneko langileek lantoki aurrean egin zuten agerraldia ikus daiteke. Erantzun ona eman zitzaion sindikatuen deialdiari. Bestalde, atentatuagatik, egubakoitzeko Koldo Amestoy ipuin kontalariaren emanaldia bertan behera geratu zen.

LABUR

Luis Ezeizako gurasoen artean euskara bultzatuz

Luis Ezeizako guraso elkarteak euskara sustatu behar zela ikusi zuen, batez ere gurasoen artean. Horretarako, ideia bat izan zuen, eta irailetik abian du lehiaketa bat ikastetxeetako guraso elkarteak. Euskarazko denbora-pasak dituen orrialde bat banatzen zaie ikasleei hilean behin. Hileko galderari zuzen erantzuten dieten gurasoen artean zozketa egiten dute. Opari gisa, liburuak, kamisetak... ematen dizkiete, eta aldi berean, euskara ikasten dute.

TELEFONO JAKINGARRIAK

ESKORIATZA

Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK

Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

OHARRAK

ESKIATZERA ETA SAGARDOTEGIRA

Eskoriatzako kirol elkarte-ko mendi sailak hiru irteera antolatu ditu San Jose zubirako. Horietatik bi eskiatzera izango dira, eta azkena, hilaren 21ean, sagardotegira.

ERAKUSKETA


Udala Errepublikak eta Espainiako gerrari buruzko erakusketa bat antolatu nahian dabil, eta herritarren laguntza behar du. Materiala duten herritarrei erakusketarako uztea eskatu nahi die. Informazio gehiago kultura etxean edo 943 71 46 88 zenbakian.

AXTOKIRENAGENDA

DIAPORAMA EMANALDIA

Jon Abril eta Asier Gogorza kazetariak egindako Txina, dragoia ernatzen delarik diaporama saioa eskainiko dute martxoaren 25ean. 19:30ean izango da hitzordua. Kultura etxean egingo dute emanaldia.

Herrian EAJk jaso zituen boto gehien, eta sozialistak izan ziren bigarren



ASTELEHENEKO GOIENKARIA.

Eskoriatzako kultura etxean jarri zituzten lau hauteskunde-mahaiak.

Z.V.M.

Kultura etxean jarri zituzten domekan bozkatzeko lau mahaiak. Nahiz eta goiza eta meza ostea izaten diren botatzera jende gehien hurbiltzen den eguneko momentuak, aurtengoan etengabe gerturatu dira herritarrek beraien ordezkariak aukeratzera.


Eskoriatzan lau mahai egon ziren domekako hauteskunde egunean, guztiak kultura etxean. Bakoitzean hiru pertsona zeuden. Ez zen aparteko arazorik izan egun osoan, eta 20:00etan mahaiak itxi zituztenean botoak kontatzeari ekin zioten.

Herrian boto gehien jaso zuen alderdi politikoa Eusko Alderdi Jeltzalea izan zen. Guztira 680 boto eskuratu zituen Eskoriatzan, aurreko hauteskundeetan baino

191 gehiago. Badirudi herrian jendeak alderdi honengan jarri duela konfiantza.

Boto gehien jaso zuen bigarren taldea PSE-EE alderdia izan zen, 497 botorekin. Arrasaten eta Aretxabaletan bezala, herrian ere bigarren indarra izan da, eta aurrekoetan baino boto gehiago jaso ditu Alderdi Sozialistak.



Bergarako Ekimena alderdiaren botoak ere zenbatu zituzten, eta guztira 334 jaso zituen. Ezker abertzalea ez zen aurreko



Nagusitu zen bigarren alderdia sozialista izan da, eta botoetan ere gora egin du

Egun osoan gerturatu ziren herritarrek kultura etxera beraien botoa ematera

Aurreko Espainiako hauteskundeetan mahaiak haur eskolan jarri zituzten



Fagor Ederlan

Fagor Ederlan, Eik. Koop.
Gastafadul suzoa 42
20540 Eskoriatza
Gipuzkoa
Tel: +34 943 719 000
Fax: +34 943 719 001



**NAIRA
Taberna**

Aranburuzabala 16
Eskoriatza. 943 71 46 71

M14 / HAUTESKUNDEAK

Abstentzio txikia izan zen domekan, eta EAJ alderdiak lortu zituen boto gehien herrian

Z.V.M.

Boto gehien jaso duen alderdiaren eta bigarrenaren artean 38 botoko aldea egon da. Hala ere, bigarren taldearen botoak baliogabeak ziren, baina herritar askoren babesa duela argi geratu zen domekan. Bestalde, Ezker Batuak gora egin du herrian.

Domekako eguna normaltasunez igaro zen. Izan ere, botoa emateko eguna zela ere nekez igar zitezkeen; domeka izanda eskolara joan behar zelako nabaritu zuten gatzagar askok.

Herrian erroldatutako 215 pertsonetatik, 37 abstentzio egon ziren domekan. Eguna normaltasun osoz igaro ondoren, mahaiak itxi eta botoak zenbatu zituzten. Ibarreko boto emaile kopuru txikiena duen herria da Gatzaga. Arrazoi horregatik, eta dena ondo joan zelako, botoak zenbatu zituen bailarako lehen udalherria izan zen. Boto gehien jaso zuen alderdia EAJ izan zen, eta




ASTELEHENEN GOIENKARIA

Gatzaga izan zen ibarrean botoak kontatu zituen lehenengo herria.

aipatu aurreko hauteskundeetatik botoak irabazi dituela alderdiak. Atzetik, Bergarako Ekimena. Hauen botoak ere kontatu ziren, guztira 46. Hala ere, baliogabeen multzoan sartu ziren zuzenean, baina argi utzi zuten

herrian jarraitzaileak dituela. Atzetik, koalizio bat: Aralar-Zutik, 16 botorekin. IUk 12 jaso zituen, eta ondorioz, gorakada nabaritu duen alderdia da. EAK hiru boto emaile galdu ditu. PSOE-EE eta PPK hiruna boto.

ESPAINIAKO GORTEETARAKO HAUTESKUNDEAK



Gurelekoak Arette eta Belaguan izan ziren eskiatzen

Aurreko astean iragarri genuen Gatzagako guraso elkarteak, GURELEK, irteera egingo zuela. Eski irteera izan zen, Nafarroara. Han egondakoen esanetan, primeran pasa zuten, eta bi egunean eskiatzeko aukera izan zutela adierazi digute. Arettera joan ziren batzuk eskiatzera; besteak berriz, Belaguara. Bertan, iraupen eskia egiteko aukera izan zuten. Denek probatu zuten eskiatzea zer den, eta oso ondo pasa zuten guztiek, gazte eta helduek. / Z.V.M.

LABUR

Madrilgo atentatua gaitzesteko 15 minutuko lanuztea

Joan den egubakoitzean hamabost minutuko lanuzteak egin ziren Madrilgo atentatuak salatzen. Gatzagan ere horrela egin zuten bertan lan egiten duten hainbat pertsonak. Udaletxe aurrean bildu ziren, besteak beste, Udaleko langileak. Beste batzuk ere batu zitzaizkiela gaineratu dute herriko Udaleko langileek. Guztira hamar bat lagun elkartu ziren han. Eskolako irakasleek, aldiz, gertaera gaitzesteko ikastetxearen atarian egin zuten lanuztea.


BEIRALAN



KRISTALDEGIA

Laster denda berritua!

Markoztatzea



Angelines
AUTOZERBITZUA

Frutan eta txarkuterian espezialitatea

Mitarte 16 • 943 79 61 42
ARETXABAETA

Herriko plaza 8, behea • Aretxabaleta • 943 79 81 78 / 670 997 274

JAR EZAZU
HEMEN
ZURE PUBLIZITATEA

Aretxagazeta

Karapaixoa Garizumako opari goxoa



Aretxabaleta okindegia

Loramendi, 6 (943 77 17 19) eta Basabe, 2 (943 77 00 81)
Aretxabaleta. Bertako okina.

Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida


hemen bada
giro!




Matikua jatetxea

Azata auzoa ARETXABALETA 943 79 16 68

atseden
CYBERCAFE



Araba Ibilbidea 27 Aretxabaleta Tel.: 943 79 89 91



EGVNEKO MENYAK
OTARTEKOAK ETA
PLATER KONBINATYAK

DURANA 32 • TEL. 943 792064
ARETXABALETA

COMPOSTELA
Taberna
Olagarro *espezialitatea*

San Pedro 12
ESKORIATZA
943 71 48 70

AKEITA
Taberna

Pintxoak eta ogitartekoak

Santa Ana 23
Tel.: 943 71 50 94
ESKORIATZA

ZARAIA
taberna

Goizeko 06:00etik irekita

Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 88 95

HIRUSTA JATETXEA
Zatoz gure sukaldea ezagutzera



Ilargi plaza 4. Tel. : 943 79 06 57

BASABE
Menuak eta afariak



Basabe poligonoa ARETXABALETA 943 79 91 84

Mitartegarai
BASERRI TURISMOA
ETA TABERNA



Areantza auzoa, Aretxabaleta
943 79 17 51

Taberna Berri



Durana 26, ARETXABALETA. 943 79 20 67

TABERNA
ARLUTZ

Gustuko musika

Mitarte 16. ARETXABALETA Tel.: 943 79 32 34

Dorleta
taberna

Bezeroen zerbitzura

Loramendi, 8
ARETXABALETA
Tel. 943 79 94 15

ORLY

Herriko plaza
943 79 09 33
ARETXABALETA

Txalaparta taberna



Aranburuzabala 25 ESKORIATZA

Aretz
taberna



ORDUTEGIA:
Asteleheneetik ostiralera
9:00etatik zabalik
Astebukaeretan
11:00etatik aurrera

Markole, 5 behea
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA